

I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

92/2018 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa, Moreda Araba udalerriko lurzoru urbanizaezineko 5-427 lurzatian upeltegi bat handitzea garatu duen Antolamendurako Plan Bereziaren espedientearen behin betiko onarpena eteten duena

AURREKARIAK

Lehenengoa. Moreda Arabako Udalak, 2016ko abenduaren 14ko osoko bilkuran, erabaki zuen Moreda Araba udalerriko lurzoru urbanizaezineko 5. poligonoko 427 katastro lurzatian upeltegi bat handitzea garatu duen Antolamendurako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea, eta espedientea 45 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea; hori 147. ALHAOn, 2016ko abenduaren 30ekoan, eta data bereko "El Correo" egunkarian iragarritz gertatu zen.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, 2017ko apirilaren 5eko ohiko bilkuran, udalak behin-behinean onartu zuen espedientea.

Hirugarrena. Ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente AFAko ingurumen erakundearen aurrean izapidetu da, eta 102/2016 Foru Agindua eman da, apirilaren 21ekoa, onarpena eman diona "Moreda Araban Fernández de Piérola SL upeltegia handitzeko plan bereziaren" ingurumen txosten estrategikoari, baldintza batzuk ezarrita.

Esan behar da 2016ko azaroaren 3an, Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuak plan bereziaren aldeko txostena eman zuela, eta bertan adierazi zuenez, ingurumen txosten estrategikoan eskatutako baldintzak betetze aldera Moreda Arabako Udalak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta edukia eta txosten horretan eskatutakoa erkatu ondoren, honako hau xedatu zen: "aurkeztutako dokumentazioa zuzena da eta bat dator aipatutako ingurumen txosten estrategikoan eskatutako ingurumen baldintzekin."

Laugarrena: Euskal Herriko Lurralde Antolamendu Batzordeak, uztailaren 12ko 4/2017 saioan, Arabako Hirigintza Plangintzako Atalean hartutako erabakien artean honako hauek hartu zituen:

"I. Espedientearen aldeko txostena emateko baldintza hauek ezarri dira:

a) Hirigintza parametroak berrikusi egin behar dira, O.03, O.04, O.05 eta O.06 planoetan islatutako eraikinaren ezaugarriekiko kontraesankorrak izan ez daitezten.

b) Paisaia egokitzeari dagokionez, espediente hobetu egin behar litzateke, lur mugimenduak, lur kotak, landaketak eta bestelakoak zehaztuz."

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2017ko azaroaren 22ko sarrera data duen idazki baten bidez, Moreda Arabako Udalak txostenak hizpide duen antolamendurako plan bereziaren espediente bidali du, behin betiko onar dadin.

Seigarrena. Igorritako dokumentua aztertu ondoren ikusi da Arabako Errioxa-Guardia Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren (LPP) lehen aldaketaren 34.2.2.g artikuluan ezarritako xehetasuna bete izana ez dela behar bezala egiaztatu, mahastien 12 ha. ko eremuari lotutako azalerari dagokiona. Horren haritik, Moreda Arabako Udalak, AFAko Erregistroan 2018ko otsailaren 20ko data jasoz, Guardiako erregistroko informazio ohar berriak aurkeztu zituen, aipatutako artikuluan eskatutakoa betetze aldera lurzati hartzaileari mahasti azalera handiagoa atxikiz.

OINARRIAK

Lehenengoa. Bodegas Fernández Piérola S. L. enpresak sustatu eta Moreda Arabako Udalak izapidetutako espediente honen xedea aipatutako upeltegia handitzea legeztatu ahal izateko baldintzak finkatzea da, Errioxa JDK-ek babestutako ardoak prestatu, biltegiratu, hazi, botilaratu eta merkaturatzeko; upeltegia handitzeko eskatutako betekizunak betetzen direla justifikatu da, Arabako Errioxa-Guardia Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren (LPP) lehen aldaketako 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, irailaren 28ko 251/2010 Dekretu bidez onartutakoa.

Bigarrena. Handitze lanen ondorioz, enpresako ardo prestatzeko espazioa iparraldetik handituko da, bai upelean hazteko fasean, bai heltzeko botilategian, botilaratzeko fasea, bukatutako produktua biltegiratzea eta abiaraztea hobetuz. Upeltegiaren azalera handitzeaz gainera, 100 kW-ko aerosorgailu bat eta instalazioen eraikuntza elementu osagarri bat jarri dira lurzatiaren ipar-mendebaldean.

Hirugarrena. Jarduketa honen espazio eremua Moreda Arabako herrigunetik ia 500 metrora dago hego-mendebaldera, A-3226 errepidea (Oionetik Moredara) eta A-4212 errepidea (Gorrebustora) gurutzatzen diren lekuaren alboan, "El Somo" eremuko 5. poligonoko 427. lurzatian. Lurzati hartzaile horrek 27.429 m²-ko azalera dauka.

Dokumentu teknikoan ezarritakoaren arabera, lurzati horri Moreda, Oion eta lekora udalerrietan mahastietarako dauden lurzati batzuk gehitu behar zaizkio; katastro azalera, guztira, 12,1588 ha-koa da.

Mahastizaintzako eta ardogintzako instalazio hauetan, eraikin nagusiak "U" forma dauka; alboetan bi eraikin ditu, eta horietan prozesuaren fluxua garatzen da (mahatsa biltzea, prestatzea, haztea eta botilaratzea), eta bi solairuko bolumen erdi zilindrokoa ere badauka, erdiko eraikinaren fatxadara atxikita; horixe da, hain zuzen ere, upeltegiaren ordezkari espazio osatzen duen eraikina (administrazioa, bisitei harrera egiteko lekua, dastatzeko aretoa, komunak). Upeltegia handitzean aurretik egindako eraikineko arkitektura soluzio berberari eutsi zaio, aipatutako alboetako eraikinak iparralderantz luzatuz.

Laugarrena. Handitutako upeltegiaren ekoizpena, memorian azaldutakoarekin bat etorrituz, urteko 250.000 litrotik gorakoa izatea aurreikusitua da; horrenbestez, Arabako Errioxa-Guardia Eremu Funtzionaleko LPPren 1. aldaketako 34.1.b) artikuluan ezarritako "upeltegi handia" definizioan sartzen da.

Arabako Errioxa-Guardia eremu funtzionaleko LPPren 1. aldaketa indarrean sartu aurretik eraikitakoarekin erkatuta, upeltegian egindako handitze lanak ehuneko 25 gaintzen du (zehazki esanda, ehuneko 43koa da, 1.643,39 m²-ko handitzea, lurzatiaren ipar-mendebaldeko eraikin osagarriaren azalera zenbatu gabe (pergola); LPParen aurretik upeltegiaren azalera 3.780,34 m²-koa zen); horrenbestez, aipatutako aldaketako 34. artikuluko 2.2.l atalean azaldutakoa ez denez betetzen, horrelako upeltegiak lurzoru urbanizaezinean jartzeko finkatutako baldintzak betetzea jarduera osoan aztertu da.

Bosgarrena. Plan berezian 25 artikuluk osatutako ordenantza arautzaileak jaso dira; artikuluhoriek hiru multzotan banatzen dira:

- Lehen kapituluaren xedapen orokorrak ageri dira: esparrua, edukia, indarraldia, etab.
- Bigarren lurzoruaren hirigintza araubidea garatu da: kalifikazio globala eta zehatua, kasuan kasuko ordenantza eta zonetan banatzea eta hirigintza proiektuak arautzea.
- Azken kapituluaren zona bakoitzeko ordenantza partikularrak definitu dira eraikin eta erabilerei, lurzatiaren antolamendu orokorrerako ingurumen irizpideei eta bestelakoek dagokienez.

Erabilera zehatuei dagokienez, plan berezi honen ordenantza arautzaileek lau zona bereizten dituzte hirigintza araubidea arautze aldera: "zerbitzuen sistema" (mota guztietako sistemak emateko azpiegituren multzoa da, ura, energia elektrikoa, saneamendua, argizteria,

telekomunikazioak hornitzea); "bide sistema" (ibilgailuetarako bideak, sarbideak, aparkalekuak eta oinezkoentzako pasabideak); "espazio libre eta zona berdeen sistema" (nekazaritza, lorezaintza eta landareak landatzeko espazioa, bereziki autoktonoak), eta "sistema eraikia" (upeltegi osoa osatuko duten eraikinek eratutakoa).

Seigarrena. Plan bereziak zedarritutako arean, lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa "bide komunikazioen babes bereziko eremuari" dagokio, indarrean dauden Moreda Arabako planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritakoaren arabera, urtarrilaren 25eko 35/2007 Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartutakoak; 91. ALHAOn argitaratu ziren, 2007ko abuztuaren 1ean. Aipatutako arauko 162. artikuluan ezarri ziren eremu horretan baimendutako erabilerak zein eraikinak jartzeko gutxieneko distantziak, galtzadaren kanpoko ertzetik neurtuta (100 metro saihebidetik eta 25 katalogatutako gainerako errepedeetatik).

Nabarmendu behar da administrazio espedientean Errepideen Zerbitzuko txosten bat dagoela, eta bertan ageri da handitze lanak 2015ean emandako polizia baimen batekin bat etorritik egin direla.

Zazpigarrena. Nekazaritza eta Basogintzako ALPri dagokionez, plan bereziaren xede den esparruak honako antolamendu kategoria/azpikategoria hauek ditu: "Trantsizioko Landa Paisaia"; "Balio Estrategiko Altua" (biak Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabal kategoriarren barruan) eta "Baso-Mendi Urria". Nabarmendu behar da AFAko Nekazaritza Zuzendaritzak 2017ko ekainaren 13an emandako txostenaren I. Eranskinean adierazi zela "Baso-Mendi Urria" erabilerak ez zuela tokirik, eta kartografia akats gisa interpretatu behar zela; baliteke akatsa Nekazaritza eta Basogintzako ALPk erabilitako eskalak eragin izana.

Aipatutako ALPk 62. artikuluan ("Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea") azaldutakoa gogoan hartuz, "Trantsizioko Landa Paisaia" eta "Balio Estrategiko Altua" zonifikazioetan, nekazaritza industriak onargarriak izango lirake (hala ulertuta nekazaritza produktuen lehenengo eraldaketan laguntzeko instalazioak edo eraikinak); hala ere, aipatutako matrizeko azalpen taulan honako hau ezarri zen: "nekazaritza eta basozaintzako jardueran duen eragina aztertu egingo da, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira sektore eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan".

Horrez gainera, Nekazaritza eta basogintzako LPSaren 11.2 artikuluan, zeinak nekazaritzako eraikuntza berriak lurzoru urbanizaezinean eraikitze baldintzak ezartzen baititu, betebeharrak bat dago ezarritako eraikuntza horietarako, hain zuzen nekazaritza gaietan eskumena duen foru sailaren aldeko txostena eskuratu beharra.

Horri dagokionez, AFAko Nekazaritza Zuzendaritzak emandako txostenaren I. eranskinean ez da plan berezi honen aldeko txostena emateko eragozpenik jarri; "Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizeko" azalpen taulan ezarritako baldintzari dagokionez, nekazaritza luraren okupazioa irizpide gisa hartuta, okupazio bateragarritzat hartzen da.

Zortzigarrena. Agiria Moreda Araba udalerriko hirigintza planeamenduaren, lurralde antolamenduaren eta hirigintza legeria aplikagarriaren arabera aztertutik, egiaztatu da zenbait alderdi ez direla aipatutako iturrietara egokitzen, honako atal hauetan zehazten direnak, hain zuzen:

A. Hirigintza araudi aplikagarriari dagokionez:

1. Bide komunikazioen babesa ez dago soilik sektore araudian araututa hirigintza antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile gisa; aitzitik, udal hirigintza antolamenduak ezarritako lurzoru urbanizaezineko kalifikazio bat da, grafikoki jasota P.02 planoan ("Lurraldearen egitura orokorra eta organikoa eta lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa"), eta indarrean dauden planeamendu arau subsidiarioen "bide komunikazioen babes bereziko eremua" 162. artikuluan araututakoa, baimendutako zenbait erabilera ezarritak, erabilera ez eraikuntzakoak, eraikuntzakoak eta azken horien hirigintza parametroei dagozkienak.

Nabarmendu behar da lurzoru urbanizaezineko zonifikazio gisa babes hori sortu dela udal planeamenduko arau subsidiarioen testu bateginean gehitu direnean sektore erakunde eskudunak behin betiko onartzerakoan ezarritako baldintzak, alegia AFAko Herrilan eta Garraio Sailak.

Horrenbestez, eta upeltegia handitzeko lanen proposamenak lurzoru urbanizaezineko zonifikazio horretako sektore araudia betetzen duen ala ez kontuan hartu gabe, udal hirigintza egituraren antolaketan ezarritakoa bete behar du.

Bi iragazkiak gai berberari buruzkoak dira, bideen babesari buruzkoak, alegia, baina bat sektore izaerakoa da, eta bestea, berriz, hirigintzakoak; biak egiaztatu behar dira.

Azaldutakoaren ondorioz esan daiteke bai espediente honen gaineko errepideen txostenak (2017ko ekainaren 6koa), bai upeltegia handitzeko emandako 2015/PC-0311 polizia txostenak ez direla hirigintza antolamendua betetzen dela egiaztatzeko tresna aproposak, eta, ondorio horietarako, garrantzia txikia daukate. Hirigintza antolaketako alderdiak betetzen direla berresteko ahalmena arau subsidiarioek baino ez daukate, eta bide komunikazioak babesteari lotutako lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa horietako bat da.

Horren haritik, eta aurreko paragrafoetan esandakoa kontuan hartuz, "bide komunikazioen babes bereziko eremuan", upeltegian 2015. urtean egindako handitze lanen aurretik egindako eraikina berariaz antolamendutik kanpoko egoeran geratzen da (arau subsidiarioen 67. artikulua), kalifikazioak baimentzen ez dituen erabilerak hartzen dituelako (arau subsidiarioen 162. artikuluko 2.b atala); egoera horretan dauden eraikinetan ez da inolako handitze lanik baimentzen (arau subsidiarioen 68. artikulua). Horrenbestez, egindako handitze lana ezin da legezatu.

Gai horretan sakonduz, eta baimendutako eraikuntza erabilerei dagokienez, adierazi behar da arau subsidiarioen 162. artikuluko 2.b atalean ezarritako eraikuntza erabilera baino ez direla baimentzen, eta egindako handitze lanari dagokion erabilera ez dago horien artean (nekazaritza industriak, upeltegiak).

2. Gogoan hartuz jarduera hau arautzen duten hirigintza parametroak udal planeamenduko arau subsidiarioen 167. artikuluko "a" atalean adierazitakoak direla, ez da betetzen ez eraikigarritasuna ($0,20 \text{ m}^2/\text{m}^2\text{s}$ -araudiko zein memoriako testuan), ez mugekiko banaketa (10 metro), ez solairu kopurua edota altuera erlaitzera eta hegalerara (bat eta zazpi metro, hurrenez hurren).

Aski argi dago, bestalde, plan berezi hau zein bertan jasotakoak gauzatzea ezin direla izan maila goragoko hirigintza testu batean ezarritakoaren aurkakoak, kasu honetan udal planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritakoaren aurkakoak. Horri dagokionez, testu hori zuzenduz baino ezingo dira legezatu egindako eraikuntza jarduketak.

Espedientean jasotako polizia baimenari dagokionez, ezin da izan indarrean dagoen egitura planeamenduak ezarritako xehetasunak aldaraziko dituen elementu bat; izan ere, esparru horretako erabilera baldintzak kalifikazio xehatuaren arabera finkatzen dira, eta ez gainjarritako baldintza baten bitartez (hala izanez gero, egiturako hirigintza araudiak aukera hori jaso beharko luke, kasuan kasuko araudira igorritik, eta soilik eksklusiboki sektore eskumeneko parametroetan edo, eraikuntza lerroa murrizten den kasuetan, 20/1990 Foru Arauan ezarritakoaren arabera arrazoitutako txosten batera, ekainaren 25ekoa, ALHko Errepideena).

B. Arabako Errioxa-Guardia Eremu Funtzionalean indarrean dagoen Lurralde Plan Partzialaren (LPP) testuan ezarritako xehetasunei dagokienez, eta txostena Euskal Herriko Lurralde Antolamendu Batzordeak (EHLAB) eman zuenez (martxoaren 16ko 1/2016 saioan), txostena nahitaezkoa eta loteslea denez txostenak hizpide duen plan berezia lurraldea antolatzeko tresna horretara egokitzeari dagokionez, EHLABen txostena jaso duen espedientearen aldeko balorazioa baldintzatzen duten alderdiak baino ez dira aztertuko, eta, modu ezohikoan, baita batzorde horrek berariaz jorratu ez dituen alderdiak, edo alderdi horiek egiaztatzea objektiboa eta hirigintzaren eskumen eksklusiboen barruan sartzen bada ere. Horren harira:

1. Aparkalekuen zuzkidurari dagokionez, planoan ez dira jaso salgaiak garraiatu, kargatu eta deskargatzeko ibilgailu astunetarako behar diren plazak.

C. Plan bereziko dokumentu teknikoa:

1. Plan bereziko dokumentuaren edukia ez da egokitzen dokumentuaren egoera errealerara, hau da, Errioxa JDK-ek babestutako ardoak prestatu, biltegitatu, hazi, botilaratu eta merkaturatzeko upeltegia handitzea legeztatzeke egoerara.

2. Baldin eta, 12. artikuluan adierazi bezala, lurzati hartzaileak oinarrizko zerbitzuen beharrianak zuzen bideratzeko (Guardiako LPPko 1. aldaketako 34.2.2.b) eta c) artikulua) esparrutik kanpoko hornidura iturriak behar badira, honako hau ez da jaso:

- Egikaritzearen antolamendu eta kudeaketa jarraibideen azterlanaren edukiak urbanizazio obrak egiteko etapa plana bilduko du (Hirigintza Planeamenduko Araudiaren 54. eta 62. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baina artikuluko horien zehaztapenak plan berezi honen zehaztasunera egokituz).

- Ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterlana, lurzati hartzaileak oinarrizko zerbitzuen premiak behar bezala estaltzeko beharrezkoak diren urbanizazio kostuak soilik jasoko dituen (Guardiako LPPren 1. aldaketaren 34.2.2.b eta c artikulua).

- Eta plan bereziaren esparruaren zedarritzean, lurzatiaren aurreko bide tartea, eta jarduerak zuzen funtzionatzea bermatuko duten zerbitzuen sarbidea ebatzi beharra daukan tartea (Guardiako LPPren 1. aldaketaren 34.2.2.b artikulua).

3. Ordenantzetan:

- Paisaia egokitzeari dagokionez, ez dira gutxieneko araudi jarraibideak ezarri orografia aldaraziko duten lur mugimenduak murrizteko.

- Jarduera hori arautzen duten parametroak, udal planeamenduko arau subsidiarioetako 167. artikuluko a) atalean jasotakoak, komunak dira udalerrri guztian; horrenbestez, egitura izaerak eragotzi egiten du parametro horiek plan berezi honen antolaketa xehatuaren ondorioz aldatzea, eraikigarritasuna, esaterako, edota gehienezko solairu kopurua, erlantz edota hegalerainoko gehiegizko altuera (adieraziz ekoizpen edo prozesu teknikoko beharrianak tarteko gainditu daitekeela, udal planeamenduko arau subsidiario horiek ez dutenean kasuistika hori jasotzen) eta mugekiko banaketa.

- Espazio libre eta zona berdeen sistemetako zonei dagozkien ordenantzetan eraikuntza ordenantzako eraikin propioak baimentzen dira, mahastizaintza eta ardogintza jarduerako etorkizuneko handitze lanak ahalbidetze aldera. Hala ere, zona libreetan ez denez ohikoa proposatutako eraikin erabilerak ezartzea, ez dauka zentzurik bi espazio horiek definitutako esparrua horrela kalifikatzea soilik etorkizuneko garapen horri erantzuna emateko.

Horrenbestez, espazio libre eta zona berdeen sistemetako zonen barruan eta ordenantzen esparruaren barruan (edozein eraikuntza asmo ezabatuko litzateke), eraikinaren mugimendu areatik kanpo geratutako azalera eta zona berde, mahasti eta zuhaitzetarako espazioak utziko lirateke, erabilera iraunkorra izango dela aurreikusten den kasuetan, eta horietan ezingo litzateke inolako eraikinik egin.

Horrez gainera, zonifikazio horretan baimendutako oinarrizko azpiegituren instalazio txikien hirigintza eta eraikuntza parametroak ez dira finkatu.

- Aurrekoaren haritik, bide sistemako ordenantzetan (sarbideei eta aparkalekuei dagokienez), baimendutako eraikinak, tasatuta egoteaz gainera, ezin dira izan zona horrekin bat ez datozen eraikuntza motakoak, esaterako ekoizpen prozesurako beharrezko instalazio osagarriak; izan ere, instalazio horiek eraikitako sistemaren parte dira.

Zona horretan erabilera bateragarrien azken epigrafea behin-behineko onarpen dokumentuan txertatu izana ez da justifikatu: "kultura ondasunak, espazio naturalak edo interes orokorrekoak babesteari lotutako eraikinak"

- Eraikinaren mugimendu area ez da aurreko puntuetan azaldutakora egokitzen (eraikuntza erabilerak baimentzen dituzten zonifikazio xehakatupei dagokienez eta mugekiko 10 metroko banaketa errespetatuz, udal planeamenduko arau subsidiarioen 167. artikuluan adierazitakoa).

- Itxiturak ez dira egokitzen udal planeamenduko arau subsidiarioen 120. artikuluan ezarritakora.

4. Planoei dagokienez:

- Aurreko puntuetan azaldutakoaren ondorioz modu grafikoan sortutako aldaketak jaso beharko dituzte.

- Halaber, lotutako lurzatiaren planoetan aurkeztutakoak gehituko dira, Guardiako erregistroko informazio ohar berrien bitartez, Moreda Arabako Udalaren idatzi bati atxikitakoak, AFA honen Erregistroan 2018ko otsailaren 20ko sarrera data jaso zuena.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Moreda Araba udalerriko lurzoru urbanizaezineko 5. poligonoko 427. katastro lurzatiaren upeltegi bat handitzea garatu duen Antolamendurako Plan Bereziaren espedientearen behin betiko onarpena etetea, ebazpen honen zortzigarren oinarrian jasotako oharretan oinarrituz.

Bigarrena. Ebazpen hau betetzearen ondoriozko aldaketak egin ondoren, Moreda Arabako Udalak testu bategina Arabako Foru Aldundira igorri beharko du, berriz ere jendaurrean jarri beharrik gabe, onartu eta ondoren argitaratu dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 5a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO